



Arabako Urrezko Emakumeak Alavesas de Oro



“Erremintarekin gabiltzan
emakume pilotariok
urte asko daramatzagu
emakumeak kirol honetan
ikusgarritasuna izan dezan”

Ane Ibáñez palaren erreferente arabar eta nazionalakoa bat da. 30 urteko gasteiztar hau, lanbidez erizaina, urratsak emanez joan da emakumeek ikusgarritasuna izateko gogor borrokatu behar izan duten kirol honetan. Brontzea irabazi zuen Nagore Martín lankidearekin batera 2019ko Munduko Trinkete Kopan. Dagoeneko prestatzen ari da 2022ko Munduko Koparako.



Zerk bultzatu zintuen palan jolastera?

10 urterekin hasi nintzen palan jolasten Ikasbidea ikastolan. Nire ikaskideetako baten aita euskal pilotako arduraduna zen eskolaz kanpoko jardueretan, eta nesko animatzeko esan zigun. Han hasi ginen Jokin Larrañagarekin, esku trinketeen erreferentea. Gogoan dut 12 neska inguru ginela, eta ostiralero entrenatzen genuela eta jokatzeko hasi ginela. Hasieran oso txarrak ginen (barreak), baina gero hobetuz joan ginen. Hori bai, asko gozatzen genuen.

Nolakoa izan zen elite mailan lehiatu arteko jauzi hori?

Talde hartatik, bi geratu ginen. Taldea handiagoa egiten hasi zen, beste klub batzuetako jendea batu zitzaigun, frontenisetik zetorrena, squash-etik zetorrena. Beste etapa bat hasi genuen nazio mailan lehiatuz, probintzia lehiaketetan eta Euskadiko txapelketetan parte hartu ondoren. Selekzioan egotea lortu dugu eta niretzat lortu ezinak ziren gauzak egitera heldu naiz.

Nazioartean lehiatzea izan da garrantzitsuena zure kirol karreraren?

Zalantzarik gabe. Uruguain aritu nintzen Euskadiko selekzioarekin nazioarteko txapelketa batean. 2018ko Munduko Txapelketarako aurrehautatua izan nintzen, baina ez nintzen iritsi. Hurrengo urtean, lortu nuen Munduko Kopan egotea eta brontzea irabazi genuen Argentinaren aurka. Orain munduko txapelketa prestatzen ari gara; 2022ko urrian izango da.

Inork ez dizu ezer oparitu, eta gogor prestatu eta lan egin behar izan duzu goi-mailara iristeko, nolakoa izan da bide hori?

Nire kasuan, beti egon naiz palari lotuta. Niretzat, hobby bat izan da beti. Inoiz ez nuen pentsatu nazioartean lehiatzea. Arlo fisikorako, prestatzaile bat genuen, baina ezer seriorik ez. Selekzioan sartzen zarenean, errendimendu fisiko hobea eskatzen dizute, eta hor hasi zen txip aldaketa; alderdi



teknikoari eta psikologikoari ez ezik, alderdi fisikoari ere dedikazio handiagoa eskaini behar izan nion. Goi-mailan lehiatzen zarenean, burua ere entrenatu egin behar da, presioari eusteko. Zaila da lan bitzita eta errendimendu handiko kirola uztartzea, baina ikasi egiten da. Momentu onak eta txarrak izaten dituzu, baina hainbeste ahalegindu ostean emaitzak daudela ikusten duzunean, oso atsegina da.

Uste duzu emakumea izateagatik lorpen bakoitza gehiago kostatzen dela?

Ziur aski. Gu Arabako txapelketan kategoría gorenean mutilekin lehiatzen gara. Baina horretara iristeko, asko borrokatu behar izan genuen. Azkenean, emakumezkoen txapelketak oso laburrak egiten zitzaizkigun. Argentinako paletan, beste modalitate batzuetan ez bezala, indarra ez da eskakizunik garrantzitsuena. Guk maila handia dugu probintzian, eta, berriro diot, hori erakustez gain eginahalak egin behar izan ditugu lehen mailan jokatzeko. Urte asko izan dira bigarren mailan irabazten eta maila gorenean berdintasunez lehiatzen. Zorionez, saria izan du horrek.

Konturatzen zara zure belaunaldiko emakume pilotariok gazteenentzako bidea irekitzen ari zaretela?

Emakumeen kirolari eta ikuspen gutxiagoko kirol modalitateei buruzko hitzaldiak eman izan ditut ikastoletan. Nire azalpenetan, beti amaitzen dut frontoi batean nesken topaketa batean ateratako

argazki batekin, helburua gero eta emakume gehiago egotea dela erakusteko. Eta ikasgela bateko bi neska argazki horretan agertzen ziren. Ilusio handia egin zidan ikusteak atzetik datozenak erreferenteak dituztelako hasi direla pilota munduan sartzen eta animatzen. Gazteek urratsa emateko balio du horrek.

Nor izan dira zure erreferenteak?

Nire erreferente nagusia Maite Ruiz de Larramendi izan da. Orain, oso maila altuan ari da eskuz jokatzen, eta palan onenetakoa izan da. Maider Mendizabal ere bai. Beste belaunaldi batekoak dira, 40 urtetik gorakoak, eta niretzat bi eredu handi izan dira.

Erramintak ahalbidetu zuen emakumea pilota munduan sartzea, hain mundu maskulinoa izanda?

Zalantzarik gabe. Egun Emakume Master Cup-en eta esku pilotako beste txapelketa batzuetan jokatzen ari diren askori, Maite Ruiz de Larramendiri adibidez, betidanik gustatu izan zaie esku pilota, baina berak erramintaz lehiatu behar izan du. Orain esku pilotan gero eta emakume gehiago ari direnez, badirudi erremintaz jarraitzen dugunok bigarren maila batean gaudela. Baina urteak daramatzagu pelotari izaten, nahiz eta oraindik ere ez daukagun merezi dugun ikusgaitasuna.



Erizaina zara eta zure lan bizitza eta pala bateragarri egiten laguntzen dizute ospitalean. Zorionekoa zara?

Ezbairik gabe. Lanean, partidak edo entrenamenduak ditudalako txanda aldaketa eskatzen dudan bakoitzean, lankideek ulertu eta lagundu egiten didate. Alde horretatik, poz-pozik nago.

Lan egiten duzu, lehiaketetan aritzen zara eta, gainera, psikologia ikasten?

Bai, hala da. Poliki-poliki noa, ez diot nahi dudan guztia eskaintzen. Beti gustatu izan zait, eta badira nire bizitzan aplika ditzakedan irakasgaiak, esaterako, "Kirolaren psikologia". Gainera, oso bateragarria da erizaintzarekin, eta ikasten ditudan gauza batzuk nire lanean aplika ditzaket. Bateria jotzen ere hasi naiz. Alde batera utzi nuen musika, eta kirolarekin jarraitu nuen. Ilusioa nuen nire musika zaletasunari berriro ekiteko.

Zergatik gonbidatuko zenituzke neskak pilotaren mundura gerturatzerara, esku pilotara zein erramintara?

Beno, bada bizitzan une bat, oraindik gaztea izanik, behartzen zaituztena aukeratzerara ingelesera, musikara ala beste jarduerara batzuetara joan, eta badirudi nesken artean kirola bigarren mailan geratzen dela beti. Normalean izaten da ez diogulako etorkizunik ikusten, uste baitugu horrekin ez dugula bizimodua aterako. Horregatik, irtenbide baliagarriagoa izan dezaketen beste aukera batzuen alde egiten dugu. Niri neuri, kirolak diziplina ematen dit, aisia onuragarria, lagun onak giro osasuntsu baten barruan... Eta horiez gain, nork bere bizitzarako aprobeitza dezakeen ikaskuntza, hala nola lehiatzen jakitea, porrotak eta garaipenak onartzea... Edozein dela ere, egin dezatela kirola, albo batean utzi gabe, eta hobeto pala bada, eta lehenetsun bihur dadila, pentsatuz baduela etorkizuna eta profesionalak izatera ere hel daitezkeela, bide hori, apurka-apurka, irekitzen ari baita. ●

Lehen erraketisten historia laburra

Diziplinak 1935 eta 1946 bitartean izan zuen bere garai oparoa, batez ere Gerra Zibilaren ondoren. Bartzelonan zortzi frontoi zeuden eta Madrilen bost. Saioak egunero egiten ziren bi hirietan. Hemerroteketan aurkitu dugu. Valentzian, Salamancan, Kordoban, Las Palmasen, Tenerifen, Sevillan... ere jokatzen zuten. Kubara iritsi ziren. Gurean, Donostiako Gros frontoian eta Bilboko La Esperanza frontoian jokatzen zen.

Gainbehera 1946an hasi zen, "administrazioak jardura geldiarazteko neurriak hartu zituenen". Negozio bat zen, eta gobernuaren ekimenen aurkako protestak egin ziren. Lizentzia berririk eman ez bazen ere, eta frontoi berririk ireki ez zen arren, erraketistek jardunean jarraitu zuten. Baina gainbehera hasi zen.



Emakume gehiago gizonak baino

Jon Juanes eta Ainhoa Palomo "Raketistak lehen eta orain" dokumentalaren egileek, kopuru harrigarri bat eman dute. 1943an, 1.432 pilotari profesional zeuden; horietatik 698, gizonak ziren, eta 734, berriz, emakume raketistak. Handiagoa da emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino.

Taldeak hornitu egin behar ziren. Juanesek zehaztu duenez, "Eibarren zegoen gunea nagusia. Hiru eskola zituen: Astelena, Txantxa eta beste bat, izena ez dut gogoratzen, ordea". Miguel Gallastegik berak esan zuen mutilek ez zutela Astelenan jokatzekeo lekurik aurkitzen, frontoian neskak zeudelako. Ordaindu

egiten zuten eskolak jasotzeagatik. Antolatuta zegoen. Azkoitian, adibidez, Etxaniz izeneko pertsona batek irakasten zuen. Neskek Tolosan eta beste leku batzuetan ere ikasten zuten. Erraketista gehienak euskaldunak eta katalanak ziren.

Ikertzen ari zirela ikusi dute, adibidez, "Paulino Uzkudun boxeatzailerean iloba bat erraketista zela", "Mutrikun, urtean 3.000 erraketa fabrikatzera iritsi zela Zumalabe, jardueraren eskariei aurre egiteko", eta "Tenerifen, aldiz, bildumetarako kromoak banatzen zituztela tabako paketeetan, haien irudiekin" edo "baita botila bat anis ere, erraketista baten irudiarekin".

«Erraketista gehienak euskaldunak eta katalanak ziren.»

Erraketistak, nolabait, gizartearen biktimak izan ziren, gizarte horrek ez baitzuen ulertzen emakumeak gai izatea pilotan jokatzeko dirua irabazteko – are gehiago, diru asko. "Etxera dirua bidaltzen zuten familiei sostengua emateko", adierazi du Palomok. "Dirua maneiatzen zuten

«Erraketistak izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizatu zuten lehenengo emakume kirolariak»

eta autonomia handia zuten, eta hori ez zegoen ondo ikusita. Ez ziren batere onak haiei buruz esaten zirenak. Erraketisten istorio surrealistak aurkitu ditugu, adibidez, erraketista batzuen seme-alabek helduaroan, 40 urterekin edo gehiagorekin, jakin zuten amak bere garaian pilotan jokatu zuela. Horren ondorioz, etxean zegoen material garrantzitsua galdu da. Ez zitzaion eman benetan zuen balioa. Berandu heldu gara".

"Erraketistak izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizatu zuten lehenengo emakume kirolariak", gehitu du Ainhoa Palomok. – "Bartzelonako Colón frontoiko emakume pilotariak epaitegi batean erreklamatu zuten, eta futbolarietako bano lehenago ere aitortu zitzaizkien".

Langile baten hirukoitza irabazten zuten; pertsona ospetsuekin zituzten harremanak; eta batzuk izarrak ziren, hala nola Bene II.a,

Ledesmako Txikita edo Anoetako Txikita. Emakume erraketistak puri-purien egon ziren hogeiko hamarkadatik berrogeita hamarrek hamarkadara bitartean. Madril, Bartzelona, Sevilla, Valentzia edo Tenerifeko frontoiak, Mexikoko Metropolitanoa eta Filipinetako eta Estatu Batuetako jai alaiak betetzen zituzten.

«2019an, Euskadin EPE emakume pilotarien lehen elkartea sortu zen, 80 pilotari baino gehiagorekin.»

1917an, Ildefonso Anabitarte frontoi enpresaburuak Euskadiko hainbat emakume pilotari eraman zituen Madrilera. Ikuskizun aparta zen, apustuaren diruarekin puztua. Izan ere, Espainiako lehen emakume kirolari profesionalak izan ziren emakume erraketistak; eta, 1943an, federatutako 1.432 pilotarietatik 734 emakumeak ziren. Kromo bildumetako protagonistak ziren eta atzerrian miresle asko zituzten arren, euskal frontoietan mespretxuz tratatzen zituzten, nahiz eta familia askoren sostengu ekonomikoa izan. 1946an, frankismoak lizentziak emateari utzi zion, eta haren ospea ahultzen hasi zen. Frontón Madrid 1981ean itxi zen, eta, harekin batera, kirolari belaunaldi hura desagertu.

2019an, Euskadin EPE emakume pilotarien lehen elkartea sortu zen, 80 pilotari baino gehiagorekin. Lehen urratsa izan zen emakume pilotariak profesionalak izatea lortzeko; izan ere, oraindik ere frontoietan oztopo handiak daude profesional bihurtzeko. ●

Iturria:

Joseba Lezetak Bizkaiko El Correo egunkarian (2018) idatzitako artikulua.

"Raketistak lehen eta orain" dokumentala, Ainhoa Palomok eta Jon Juanesek egina.



Non ikas eta goza dezakezu kirol honetaz?


Jar zaitez harremanetan
Arabako Pilota Federazioarekin



**ARABAKO PILOTA
FEDERAZIOA**
FEDERACIÓN ALAVESA
DE PELOTA

Amadeo García de Salazar plaza z/g
01006, Vitoria-Gasteiz (Araba-Álava)
945 13 05 72

www.pilotaraba.eus
fapv@pilotaraba.eus



dxtfem.com/alava/

EL SITIO QUE TE INFORMA SOBRE
EL DEPORTE FEMENINO EN ARABA

ARABAKO NESKEEN KIROLARI
BURUZKO LEKU



Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

araba álava
foru aldundia diputación foral



web.araba.eus/eu/kirola